

+ Anaitasuna

VIII URTEA - N.º 92

Deposito Legal SS. 1092—1959

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

AGOSTUA (8) 1962

ERREZATEA GALERAZO?

“Jaungoiko alguztiduna: Zure menpeko autortzen gara. Zure bedeinkaziñoa eskatzen deutsugu geuretzat, gure gurasoentzat, gure maixuentzat eta gure aberriarentzako”.

Otoitz labor auxe errezatzen eben egunero Ipar-Amerikako Estatu Alkartuetako erri-
-eskoletan milloika umeak ikasten asi aurretik. Orain Justiziaren Batzar Nagusiak galarazo egin dau, amar urtean zear auzi-gai izan ostean, au da, auzimai batetik bestera erabillita gero.

Erabaki onek, alabearrez, Ipar-Amerikako gizarte-mailla guztietan eztabaida gogorak sortu ditu. Ta asko arritu gaitu naziño aundi orreri buruz ain eritxi goitikoa dogunok.

Ulertu-eziña baita, ain zuzen kontzientziaskatasunaren izenean, askatasun ori zelantotu daiteken. Zuzen danez, otoi orren bidez Jaungoikoa ba-dala autortzen da eta gizon guztiekiko ardurea daukola.

Epai au —Iparamerikan ezta sekulan aaz-

tuko— erri aundi aren kontra doa, euren izakerearen, pentsakerearen eta eginkerearen aurka dagoala dirudi. Erri-ikastoletako bederlatzi ikasleen bost gurasok eroan eben tribunaletara otoi orren kontrako aitzakia. Eskola areixetako berrogei ikasleen amasei gurasoek eskabide orren aurka urten eben. Gaiñerako gurasoek, bost milla ta geiago ikasleenak, sekulan eztabe ezer agertu otoiaren kontra.

Beraz, geienen eritziaren kontra jokatu dabe epai onetan, eta geienen eritziak zer-esan aundia daukon Errian gertatu da: Ipar-Amerikan... Ondiño olakorik!

Burugabekeri bat izan dala esan bearra dago, Ipar-Amerikarren artean Jaungoikoa ezur-munetaraño sarturik dago-ta. Ez gizon-andra bakotxean bakarrik, baita erriaren barruko oiñari sakonean be. Erriaren esakerea: “Jaungoikoagan dogu itxaropen”; kargu edo aginpide goikoenak

—lëndakariarena be bai— Liburu Santuen gainean juramentu egiñaz artzen dabez; iparamerikar gudariak, soldaduzkara joaten diranean, “Jaungoikoaren menpeko dan erri baten alde” bizia emoteko gertu dagozala autortutzen dabe; Batzarraren billerak otoitz bategaz asten dabez; Ipar-Amerikarrentzat egunik samurrena ta biotz-unkigarriena “Es-ker Eguna”, urtean zear jaso dabezan mese-

deakaitik Jaungoikoari eskerrak emoteko jaia da. Ta oraindik adibide geiago atera geinkez. Baiña azaldu doguzan arrazoiak bali badabe, erriaren naiaren aurka jardun dirala ta goiko auzimai-buru nagusiek oker joatu dabela ikusteko, Ipar-Amerika Erriak eta atzerriko geienak zelán erantzun daben begiratutea besterik eztoqu.

J. A. Aizpuru

2000 milloi goseakin

Sarritan diñogu gaurko mundua txarto doiala. Baiña, ainbeste erabilten dogun esan onek fundamentorik ba ete dauko? Zein da ba gatx onen sustrai uts, garbi ta benetako?

Estadistika ots batzuek itaunkera oneeri erantzuten deutse. Munduak 2.800 milloi biztanle daukoz. Onetatik, erdiak ez dira urreratuten Jaungoikoak gizonari deitu deuteson lenengo maillara: norberaren janaria. Berba baten esateko, gure anai geienak gosea daukee.

Esan onetan gauza bi doaz alkarturik: 2.000 milloi goseti ta 100 milloi biotz bako tripaundi. Izan leiteke gure munduan ondapan edo zalaparta aundiagorik?

Gaurko jakintzak egin daben aurrerapezagaz osatu leikez, sarritan orainarte gizonen bildurgarri izan diran lepra edo bizia. Baiña gosea baztertuteagaitik gauza aundirik ez dau egin. Eta ez dago gosea baino gaixo aundiagorik ta ainbeste zabaldu danik. Ementxe egin bear leukez aurrerapen aundienak. Ementxe saiatu bear litza ke sendo ta gogorren.

Gauza jakiña da nazioak gosearen aurrean ez dirala guztiz sorbaldez biurtu. Or dauko gu ONU-k ereiki dauan FAO, goseak dakarren durrunbadea garbitu ez-ezik apur bat arinduteko. EEUU-ko “karitas” bera be orain asko ez tala agertu jakun. Ori egia da; baiña ori egia bada, ez da guzurra “karitas” il zala, eta oraindiño FAO-k gosea ez dauala baztertu. Oraindik geiago: geroago ta txar toago goaz. Gizon bakoltzak 1930-an baino gitxiago jaten dau; batez be okela ta es ne gitxiago. Txina ta India naziorik gosek illenak dira. Maotsetung jendea ustutzeko gerra baten zai dago, orreatik Laos eta Formosaren iruntzi bearra.

Eta zeintzuk dira gosearen benetako sustraiak? Nazioen berekoitasuna. Danori jatorrigu burura EEUU edo Ingalterra-k egin labena. Ezin leike topau nazio baten berekoitasun aundiagorik. Sudamerika-ko nazioen zibilizazioa atzeratuteagaitik alegin guztiak egin dabez. Dolar batzuk emon eta mina aundiak ustu; gaztai ta mantekillaren ordeze base ederrak ipiñi ta titara bete mediziñagaitik empresa ederrak eskuratu. Gizo-

naren eskubiderik ederrenak urratu dabez. Lagundu ta eskua luzatu bearrean, zapaldu. Oraintxe be ez jakie ondo paretan De Gaull-ek gura daben Europa-ko batasuna. Eta orduan zer? Auxe: gauzak ondoago eta obeago aterateko alegin bat. Eta beste bat, ez txikiagoa: Jaungoikoak gizonaren eskue-
tan ipifin dabezan janari ta lurrak ondo ba-
natuteko. Eta lagun urkoaren maitasuna gi-
zonen biotzetan sartu dedin.

Joan XXIII-ak esan deusku: "Gaur lagun urkoaren maitasunak prisa dauko. Danok, fedez eta itxaropenez, maitasunezko udaba-
rri baten zai gagoz".

TV-ren GAITZAK


Telebisiñoa, gaur, gurasoen buru austerik aundiena da. Tebeoak ez dira orain umeen areriorik aundienak. Telebisiñoa da gaunko gurasoak artega jarri bear dabezana. Umeen gaizkilletasunak nazio guztietan igon dau. Errua ez jatorke tebeoeri, antxiña lez, telebisiñoari baiño. Umeak biguntasun aundi-
koak dira, orregaitik eurak dira telebisiñoa-
ren aurrean geien sentiduten dabenak.

Igaro dan urteko azken illetan New York-en 1.800 krimen izan dira. Guztiak umeak egindakoak. Derrigorrekua izan jake agin-
tariari garbikera bat eskola guztietan egi-
tea. Ta ala egin da. 1.000 ume gaiztoenak kanporatuak izan dira. Ingalaterra, Frantzi ta Beljikan be bardin egin zan.

Zergati sortu ziran ainbeste krimen? Te-
lebisiñoagaitik. 1961-ko azkeneko lau illee-
tan berrogei ta bi gizon-iltze, amabost bu-
rruka, oiñazeko amasei antzerki ta berro-
gei ta amar tiroteo agertu ziran.

Españako telebisiñoa onelako gauzetatik urrin dabil. Umeentzako emoten diran pro-
gramak irakaslariak izaten dira geienetan. Ez da sarritan burrukarik ikusten. Ez ori bakarrik, oso aukeratuak dira umeentza-
ko. Baiña dana dala gurasoak itsuak le-
gez ez dabe egon bear. Izan leiteke gauza egogortsutxoak agertutea be. Orregaitik, kon-

tuz gurasoak. Ez da naikoa besteen eskue-
tan dana itxitea. Umeak biguntasun aundi-
koak dira, ta pantalla baten aurrean ager-
tuteagaitik bakarrik, uste dabe dana txalo-
tu egin bear dala. Bear bearrezkoa da gura-
soak begiak tartean pantallatik kendutea ta euren umetxoenean ipintea. Askotan arte-
gaz ta itxura txarragaz ikusiko dabez. Aun-
di baten biotza burruka bategaitik ez da bildurtuten. Ez da txikiarena olakoa; edo-



zein gauzak ikaratuten dauz. Kaperuzita ta Blankaniebes ez da sartuten gaurko ume-
netan. Zeozer geiago bear dabe; eta emen-
txe dago arriskua "zeozer geiagoan".

Gurasoak, zuen umetxoak telebisiñoan ar-
tega ikusten badozuez itxi ta liburutxoen
bat emon. Zuen semeen biguntasunagaz ez eizue jokatu. Euren nerbioak ez eizue amaitu. Orrela bada biarko egunean zeuon kontra altxako dira.



Aita Imanol-ek

Liverpool-etik

"ITXASOKO IZARRA"

Bagilleko egun bero baten alde egin eban gure barkuak Deustuko moillatik. Ontzi txiki samarra zan. Milla tonelada-edo eukiko zituan. Amazortzi gizon giñean barruan. Eurretarik iru euskaldunak. Beti euskaldunen bat-Españiko barkuetan. Lenengo makifis-tea, Barakaldotarra; irugarrena, Getariarra; eta neu. Barkuaren izena, Miguelín Pombo-Matrikulea, Sananderekoa.

Egun bi terdi geroago, arratsalde beranduan allegatu giñean Inglatierrara. Karga barik eldu gintzazan. Nik ez dot askorik ulertzen, baiña Españiko barkuen (irabazia) ez da ona urrean.

Gau guztian ibilli zirean portuko langileak barkua kargetan. Gau otza, laburra, illuna. Inglaterrako gaua. Ez neban ikusi izarririk zeruan. Urrengo egunean, alik lasterren aldendu zan barriro gure barkua; eta neu bakarrik geratu nintzan legorrean. Agur, Miguelín Pombo, Sanandearra; agur, Landaluze ta Azkue, nire euskaldun lagunak. Agur, urrengoarte. Uxala, iru illabele barru, zeuekaz barriro Bilbaora biurtuko banintza!

LIVERPOOL

Goizeko amaiketean artu neban Liverpool-

-erako tren. Tren garbia, lasterra. Inglaterrako trenak, guztiz onak dira. Trankil trankil jarri nintzan neure jezarlekuan; eta Gales-eko landa ederrak ikusten nengoan bitartean, pentsamentu asko etorten jatazan burura: Españiko trenak, Euskalerraren etorkizuna, Merkatu Komuna, Europa osoaren Alkartasuna, eta abar.

Beti entzun dot, Inglaterra itxusia dela. Baiña nire ustez, ori ez da egia. Nik ikusi dudana beñik bein, zoragarria da: landa ederrak, berde berdeak, ganaduz beteak; solo mardulak, ondo landuak, baserri garbi ta politak. Ai Inglaterrak Españiko eguzki ederra baleuko!

Sosoi onean allegatu nintzan Liverpool-era. Liverpool, itxasertzeko erri aundi bat da: kale asko, automobil asko, jente asko gora ta beera. Kanpotar batentzat, gauza erreza izaten da olako erri aundi baten bitartea. Baiña itxastarrentzat beñik bein, ez da ain erreza izaten, Liverpool-en beintzat. Itxasoko izarrak, mariñelentzako zuzentzaille onak izaten dira, bide artezetik joateko. "Itxasoko Izarrak", mariñoentzako laguntzaille onak izaten dira, erbesteko portuetan euren bizitzako errunbua ez galtzeko. Liverpool-en, olako "Itxasoko Izarra" diztiratzaille bat dago, portutik urre, Hará-

man kalean. Liverpool-era jotan direan itxasgizonak, laster topetan dabe euren Etxea, "Stella Maris" edo "Itxasoko Izarra" aurreko ate ondoan letreru baten idatzita daukona.

Olako etxeak, geroago geiago zabaltzen asi dira mundu guztian zear, Itxas-Apostoladua- ren zuzendaritzapean. Batzuk, guztiz ede- rrak dira. Beste batzuk, ez orrenbestekoak. Bilbaon, olakotxu bat daukogu Esportero kalean; baiña laster, Jaungoikoaren eta Biz- kaitarren laguntziñoagaz, "Stella Maris" eder bat eukiko dogu, Liverpool-ekoaren an- tzekoa.

ITXAS-APOSTOLADUKO NESKATILLAK

Asko gustatu jat Liverpool-eko Itxas-E- txea. Etxe polita, gaurkoa, itxastar batek bear dituan gauza guztiakaz ornidua. Lo egiteko larogetaz gela daukoz, barra, janto- kua, telebisiñoa, barberia, liburutegia, la- banderia, otoitz-lekua, dantza lekua ta abar. Edozein erlejiño ta naziñotako itxasgizonak batzen dira bertan. Atzo, jantokian, Birma- niako gazte bategaz egon nintzan berbe- tan; dantza lekuan, afrikano ta txino ba- tzuk ikusi nituan; eta ping-pong kuartuan, olandres morrosko bat aurkitu neban italia- no batzukaz olgetan.

Gau guztietan, musikea egoten da; eta itxasgizonak pozarren ibiltan dira dan- tan Liverpool-eko neskatillakaz. Euretari- ko geienak, neska gazteak dira, alaiak, sin- patikoak, baiña batez-bere kristiñau onak. Asko dira. Berreun bat. Astean astean, txan- daka etorten dira bertora, arazo guztiak egitera, euren borondatez, Jaungoikoaren eta itxastarren amorearren, Itxas-Apostola- duko Kapellauaren begipean. Eurak barik, ez dot uste olako etxeetan gauza aundirik egin leitekenik.

Uda denporan, domeka guztietan, exkur- sionen bat egiten dabe mariñoakaz batera. Gaur, neu-bere eurokaz joan naiz. Liverpool- eko urrun ibilli gara, lago baten ondoan.

Freskotxu egiñarren, ezin obeto igaro dogu eguna. A bai pozkarria, bai alaitasuna!


Asko gustatu jat Liverpool-eko Itxas- Etxea batez-bere bertokoen arima-ardura. Itxasgizon batek baiño geiagok, berton aur- kitu dau bere bizitzako bide zuzena. Orixe esan deust Aita Frayne-ek, bertoko Kape- llauak.

OESTAFRIKA

Euskaldun arraintzaleak, olako etxe bat bear dabe ainbat ariñen Oestafrikan. Aur- ten, arraintzale asko joango dira Sierra Leonara. An igaroko ditue lau, bost, sei illa- bete, etxetik urrun, familia ikusi barik ain- beste denporan. Amerikanoak —arraiña erosten deuskuenak— guztiz aberatsak dira, eta prest dagoz olako etxe bat Freetown-en egiteko. Baiña euren dirua ez da naikoa. Arraintzaleak eurak erakutsi bear dabe ola- ko etxe bat eukiteko ardurea.

Oraindiñokarren, gauza asko dagoz txar- to Oestafrikan euskaldun arraintzaleentzat. Aspaldion, euren bizibidea asko obatu da; baiña euren gizarte-bizimodua, oso gair- ki dago oraindiño. Orrexegaitik, dirua po- lito irabaziarren, txarto bizi dira, zorion ba- rik, barruko bake barik, biotzeko utsune aundi bategaz. Utsune ori beteteko dira Itxas-Apostoladuko Etxeak.

Problema oneen gaiñean berba egiteko etorri naiz bide batez Liverpool-era, argi bi- lla, barri billa. Bertoko Kapellaua, guztiz ona izan da nigaz. Atzo eldu nintzan, eta gaur gaubeon urtengo dot Irlandarantz. Agur danori. Agur, urrengoarte.



MAITASUNA, ZER?

1.—LENENGO AMODIOA

Amasei urteko neskatiflatxu bat da. Bere izena Mirentxu. Adurra dariola dabil ka-lean zear. Erriko mutil guztiak berari be-gira dagozala uste dau. Ez da beragan ka-biduten... Orainarte dana zan agurra, dana zan apaltasuna; orain, oster, gitxi dira ka-lean bere begirakunea merezi dabenak. Orainarte ez eban eroaten gafa baltzik, erro-pa esturik, moñu motzik, baiña, orain arpe-gia bera ez jako ikusten bere ule luze ta bere gafakaitik. Zer gertatu da ba? Gure Mirenek lenengo amodioaren "kili-kili" go-xoa sentidu dau. —"Ai, zelako goxotasu-na!... —diño bere artean —"Norengana jo-ko ete dau amodio onek?.." Bere irudimena arantza ta onantz asi da, gelditu barik. Ta, ametsak? Aundiak, guztiz aundiak.

2.—BIGARREN AMODIOA

Baiña, lenengo amodio ori arin doa. Iru, lau urte igaro ezker, amodio orren goxota-sunak iges egiten dau. Bein atsekabeen ar-pegí ximurra agertu ezker, goxotasun ori geiago ez da auznartuten mundu onetan. Mundu onetako gauzak ez dira iraunkorrak igeskorak baiño; mundu onetan dana "doa"...

Amodio gauzatan be bardin gertatuten da: lenengo "kili-kili" xamurra tximist bat le-gez pasatuten da.

Lenengo amodio onen ondoren, bigarren amodioa etorri oi da. Amodio au ez da le-

nengokolakoa; legorrakoa izan oi da, baiña sendoagoa, sentzun geiagokoa. Amodio au geinetan beintzat, atsekabe ta negar sofia tartean sortu oi da. Amodio onen sustraiak lenengokoarenak baiño sakonagoak dira. Lenengo amodioak dana ikusten dau urdin, asul; amodio onentzat dana poza, dana ze-rua. Lenengo maillako amodio onetan bizi diranak, geienak beintzat, ez dira benetako bizi-modura jetxiten. Baiña, urteak joan urteak etorri, danak jetxi bear dabe benetako mundu onetara. Jeitxikera onetan ager-tuten dira atsekabeak, negarrak, sufrimen-tuak. Jeitxikera onetan sortuten da bigar-ren amodioa, benetako amodioa. Jeitxike-rra onek erakusten deutso gazteari biziten. Jeitxikerá au lenengotan mingotza izan arren, gero, urte batzuek igaro ondoren, le-nengo jeitxikera baiño naiago izaten da.

3.—KONTSEJUAK

Gazte, alegindu zaitez sentsun bageko amodioak egal batera jaurtiten. Alegindu zaitez benetako amodioaren sustraiak topa-ten. Ez zaitez erretu zeure biotz barruko lenengo "taupadakaz"; eskatu kontsejuak gurasoeri, abadeeri,... Ezi zeure maitasuna. Ezi zeure irudimena, ta josi bai, josi zeure maitasun beroa benetako bizitzan. Ez eliza egundo esan: "...ze zoriontsu izango nintza-ken mutil aregaz ezkonduko banintza!..." Ta ezkondu ta gero: "...ze zoriontsu izan nin-tzan orduan!..." Ikasi dagigun sasoi bakoi-tzari berea emoten. Ikusi dagigun beti Jaun-goikoaren esku zabala momentu guztietan. "Egin bedi niregan beti zure borondatea!..."

Idoyaga-tar Xabier

ZERGATIK...

1.—GIZONEZKO ASKOK...

- isten dabe bigotea?
- emoten deutso bere buruko uleari ain-beste jira-bira?
- gastetan dabe ainbeste diru tabako usain-tsua erosten?
- gastetan dabe ainbeste diru kolonia bote-llak erosten?
- konbidatzen dabe tabernetan, olgeta-tokie-tan, ziñean?
- Zergaitik? Arrokeriagaitik?...

2.—EMAKUME ASKOK...

- jasten dabez gona estuak edo laburrak?
 - jasten dabez prakak?
 - gastetan dabe ainbeste diru apaingarrietan?
 - erretan dabe zigarroa?
 - egiten dabe ainbeste penitentzi (?) josta-rratza baiño meiagoak diran takoten gai-ñean ibiltetan?
 - doaz ainbeste bidar ulia apalduten daben tokietara?
 - egiten dabe barre, batzuen aurrean?
- Zergaitik? Arrokeriagaitik?
...“Bere burua zapaltzen ez dakiana, ez da nire jarraitzailea”. (Kristo-k)

Triki

IGETARGITXOA

IGETARGITXOA

Gauero-gauero, oera orduko, zerura begira egotalditxo bat egitea gustatzen jat. Ez jakit, baiña beti aurkitzen dot gauza barriren bat.

Banangoan leengo gabaz be, leiotik begira. Gau illuna zan Igetargirik ez egoan; zaratarik be ez. Eta zerua, ze ederra egoan zerua! Garbi-garbi, dana izarrez bete.

Begira-begira eta alako batean izartxo bat mogitu egiten zala konturatu nintzan. Astiri-astiro joian izar tartean. Igetargitxoren bat nunbaiten. Eta pentsetan gelditu nintzan.

Zerua aundia eta ederra, dana izarrez piri-piri, eta izarren tartean izartxoak, igetargikumea, bakarrik, igesik... Gizona ta Jaungoikoa aurrez aurre egoazala begitandu jatan. Eta lotsaturik gelditu nintzan.

Gaurko aurrerapenak, gaurko gizonaren alguztiduntasuna... eta igetargitxoak bakarrik! Gaurko inbentuak dirala ta zoraturik gabiltz, gure aunditasuna aupatzen, eta igetargikumea baiña ez! Egitan, triste xamar laga nindun gau artako igetargitxoak.

Eta izartxoak, igetargitxoak, mendi tartetan zear ezkutatu zan. Baiña zerua, dana izarrez, beti legez... Begira-begira gelditu nintzan oraindik. Egundo baiña ikusgarriagoa, zoragarriagoa begitandu jatan zerua orduantxe.

Inoiz baiña beranduago oeratu nintzan gau aretan.

Arriola

Z A A R B I A K

Denporeak aldatu egiten dauz gizonak eta gauzak, aren ingurukoak. Gertakera batzuetan argi ikusten dogu ori. Prantzia ta Alemania orain ogei urte alkarren arierio aundienetakoak izan ziran; gaur, barriz, adiskiderik benetakoena lez azaltzen jakuz erri biok. Europaren batasunerako oiñarrik sendoenak De Gaulle ta Adenauer erri-gidari ospatsuek ari dira ipinten Laster Ingalaterra "Alkarrekiko Merkatura" sartzen danean, munduko erri-alkarterik arrigarriena gertatuko da.

Europa izan da gizaldi askotan zear mundu ikasiaren buruzagi, eta oraindik be beru dogu buru. Europako erri-alkarte aparteko onek Ipar-Amerika bera be kezketan ipini dau, batez be ekonomi-saillean ederto, ezin obeto, aurrera doalako Europako "Seikotea" (Alemania-Prantzia-Italia-Holanda-Belgika-Luxemburgo). Kennedy Lendakariak orregaitik luzatu deutso eskua Europa askatuari, euren ekonomiak (Amerikanoenak) lur jo ez dala. Kennedy-ren asmoa, mundu guztiko erri askatuen artean Alkarrekiko Merkatu zabal-aundi bat sortzea da. Lendakariaren asmobide au Europako buruzagieri begiko jake, ta urteekaz Alkartasun sendo bat lortuko da, Komunismoaren menpean dagozan errien ekonomia ondatzerarte.

Begi zorrotza eta argia agertu izan dabe beti inglesak iragarkaitan, etorkizunaren barri emoten, eta Mac Millan-ek orain urte bi esan ebana jazotea ez litzake arritzekoa izango: urrengo amar urteetan ekonomi-gudarik gogorrena ezagutuko dauala munduak.

Rusia larri ta estu dabil. Alde batetik baski guda bitartez eztaukola irabazterik. Bere burua ilko leuke-ta. Bestetik, barriz, Europako erri askatuak oparotasunera iristen doaz, eta bera ezinean arkitzen da, Lenin-ek agindu eban paradisu-bizitza beti gerrogorako eskeñiaz. Batez bere nekazaritza-arazoa txarto joako. Ta ganera azken-al-

di onetan Ipar-Amerikak entzute aundiko asmakizunak agertu dauz. Or dabil "Telstar" satelitea, Ameriketako telebisiñoa Europara dakarrena ta Europako aruntz daroana. Rusiari aurrea artu deutso jakintza-gailetan, eta ganera Ipar-Amerika eztago bakarrik; beragaz alkartu dira Ingalaterra, Kanada, Prantzia ta Alemania. Ta dakigunez, alkar artzeak indar aundia dau. Bildurgarria litzake alanda guztiz be Rusia ta Mexina aundia (gudarietan ugaria) ta euren ardurapean dagozan Naziño Komunistekaz batera, bakardadean itxirik, ekonomian ondatzea.

Alde guztietatik inguratuta iges-biderik bage arkitzen dan basurdeak lez, edozeñen kontra erasoko leukie ta orduan bai egin daua gureak. Elitzakioe ajolik gizadi osoa ondatuko balitz be.

Baiña Europaren batasuna oraindik asieran dagoala esan geinke, ta urte asko berao dira asmobide bikain ori betetzeko. Bienbitartean Russian bere aldatuko dira gauzak. Orain amar urte ez egoan gaurko askatasunik Russian bertan be. Stalin eskutatu zanetik Rusiako barri asko dakiguz. Arrezkero samurtu dira buruzagiek eta eztago antxiñako "odol-garbi-ketarik". Gaztediak asko begiratzen dau erri askatuetara, eztau sinisten Marx-ek agindutako bizitza errex eta atseginen. Rusiak baiña lenago lortu dabela ikusi dabe "bizitza ugari" ori Sartaldeko Erri askoek.

Dana dala, gorago esan dogun lez, Europa zaarra aurrelari dogu burubide ta erabakiak artzen eta betetzen. Agempide lez, or ikusi doguz Europako zaar biak alkarri adiskidetasunik biotzekoena azaltzen. Prantzesak ongietorrik heroena emon deutsoe Adenauer-eri, ta "Tour"-eko mutillak baiña txalo geiago jaso dauz. Agorrean De Gaulle Alemanira joaten danean, ordainia jasoko dauala uste dogu.

Azurmendi-tar Joan



LARRASKITU-KO "UNIBERSIDADEA"

Azkeneko urte oneetan Bilbo asko azi da. Bere itxas-ertz biargiñak jente talde aundiak batu dauz. Ortxe bizi dira naste borrastean bizkaitarrak, naparrak eta andaluzitarrak. Ta jakiña, gizonak etxeak egiten dabez, eta etxeak auzoak. Perretxikuak legez sortu dira Bilboko itxas-ertzean auzoak eta ez ain baketsuak.

Auzo oneek ez euken ez eskolarik ez eleizarik... ezebez!

Urte bi beteko dira Bilbo-ko mutil gazte batzuk asmo on bat artu ebela. Asmo au zan: auzoetako umeeri eskola ta dotriña emotea. Egun baten, or doaz gure mutil zintzoak Etxebarri inguruan egoan "El barranco" deituten eutseen "Bidonville" batera ta ementxe asten dira jakin gura ebeneri ta ez ekienari erakusten.

Baiño gure mutillak geiago gura dabe ta "El barranco"-ko biztanleak Otxarkoagara aldatuten diranean an doaz eurak be, ta Otxarkoagan geldituten dira, nagusiak eskolak eta gaiñerakoak jarri arte. Naikoa zan egindakoa. Asitako eginkizuna gogor ta biotz onez bete eben. Baiña onekin ezin konformatu gure gazteak eta beste auzo beartsu bat aurkitu dabe. Auzo barri au Laraskitu da.

Toki bat erosi ta apur bat apainduaz eskola bat egin dabe. Bost illabete dira eskola au edegi zala, ta ikasleak gorantza doaz. Laraskitu-ko "Unibersidadea" esaten deutsoe. Danetariko gauzak erakusten dabez: matematikas, kultura jenerala, izkuntzak eta abar.

Au da benetako maitasuna ta karidadea. Danetariko mutil gazteakaz urrun joan leike.

Barri onek ez dira zabalduen; zer dala ta? "Gaurkoak" ez ete dira ba?

AITA KOLBE

Maitetasunaren martiri izan zan Aita Maximiliano Kolbe beingoan altaretara gortesia izango da.

Aita Kolbe naziren presontegi baten izan zan, iru edo lau seme eukazan aita baten ordeze bere burua eskeiñi eban da. Ta esan da egin. Aita Kolbe laba gorri baten auzo biurtua gelditu zan, gizon au ta bere familia salbatuteko. Ikasi daigun danok zein dan benetako maitetasuna.

GIZON BAKARRA

Nora doa gizon bakar ori bide onetatik? Atzean itxi dogu ba ni noan kotxeak orduko eun kilometro errez iruntziten dauz ta. Jake apurtu bat dauko jantzi guztizat. Sorbalda gaiñean lau edo bost lapiko daroaz. Nor ete da? Ojalateruen bat? Lenengo erria ogei ta amar kilometrora dago. Goiza otza da. Edurra ta euria noizean bein.

Kristo lapikoak sorbaldan dabezala, jake erdi apurtuagaz jantzia.

GINA-REN ODOLA

Ezin izan leike dana lotsabagekeria, diborzioa ta erretratu naskagarria.

Errebista baten ikusi dot eta barru barruan poztu naz, Gina Lollobrigida bere odola eskeintzen ikustean.

Bere egokeran ikusten da entzutea zabal duteko bide bat besterik ez izatea be balte kela. Niri ez deust ardura. Nik dakidana da: odol orren bitartez gizonen bat, umeren bat edo neskatil gazteren bat eriotzaren ateetatik urrundua izango dala. Ta naikoa da.

Leopoldo's